



Chile kalea, 1
01009 Vitoria-Gasteiz
Erreserbak: 945 228 494
info@restaurantemesa.com
Ordutegia: 13:00etik 23:30era,
astelehenetan izan ezik (itxita)

Gasteiz Hiribidearen ondoan jatetxe berezi eta ospetsu bat dago. 1982an, Merino familiak Mesa jatetxearen zuzendaritza hartu zuen; ordutik, sukaldaritza tradizionala eta plater gozoak eskaintzen dizkigute, tratu bikainarekin.



Jatetxe honek bi zati dauzka: bata, ehun mahaikiderentzat eta bestea, berrogeita hamarrentzat.. Dekorazio tradizional eta xumearekin eta zerbitzu profesional, jatorra eta hurbilarekin etxean bezala sentiarazten zaituzte. Toki txikia, iluna eta zaratatsua ez den arren, jendez lepo egoten da beti eta erreserba egitea komenigarria da.



Betiko platerak eskaintzen ditu kalitate handiko lehengaiekin, besteak beste: txangurroa, legatz langostatua, baina nire gustukoena txirlak

saltsan da. Urtearen garaiari egokitutako menuak dauzka eta eguneko menua eskaintzen digute; horretaz gain, menu bereziak, plater ezberdinak eta sasoiko produktu asko dituzte. Han, denetariko ardoak dastatu daitezke, batez ere Errioxako ardoak; laurogei ardo erreferentzia baino gehiago dauzkate. Eta postreak zoragarriak dira.



Adin guztietako jendea elkartzen da bertan eta asteburuetan familiez beteta dago, gehienek zerbait ospatzeko, adibidez; urtebetetzeak, jaunartzeak,... Giro oso ona dauka, agian hasieran giro serioa duela iruditzen zaigu, baina gero zerbitzariak oso hurbilak eta atseginak dira, eta azkenean oso gustura sentitzen zara.

*Etxean bezala sentiarazten zaituzten jatetxe familiarra.
Ezagutu beharko zenukete, joan egin behar duzue!*

J.C.M